

7. AKTA: BETEBEHARRAK FROGATZEA

Leitzan, 2024ko apirilaren 30an, 13:30etan, ondoren adierazten diren pertsonak bildu dira Mankomunitatearen bulegoetan:

- Lehendakaria: Unai Miranda Berroeta, Mendialdea Mankomunitateko presidentea.
- Batzordekidea: Idoia Saralegui Ochotorena, Mendialdea Mankomunitateko ofizial administraria.
- Idazkaria: Mainer Castillo Elarre, Mendialdea Mankomunitateko idazkaria (2023ko apiriletik aurrera Garazi López Villanuevaren ordez) .

AURREKARIAK:

1. Lehenengo kontratazio proposamena

Epaimahaia 2023ko urtarrilaren 31n elkartu eta puntuazio handiena lortu zuen izangaiaren aldeko izendapen proposamena egin zuen. Izangai hau Andoni Aldalur Zulaika izan zen.

Epaimahaia proposamen hori, espediente osoarekin batera, Mendialdea Mankomunitateko Lehendakaritzari helarazi zion, organo horrek baizuen prozedura ebazteko eskumena.

2. Proposamena deuseztatzea

Espedienteko dokumentazioa aztertuta, ondorioztatzen da akats materiala egon zela proposatutako izangaiak, Andoni Aldalur Zulaika jaunak, aurkeztutako dokumentazioaren ebaluazioan, ez baizituen egiaztatu deialdiko 3.1.c) oinarrian ezarritako baldintzak, CAP – Gaitasun profesionalaren ziurtagiria tituluari dagokionez.

3.1.c) oinarriaren arabera, izangaiak "*I. eranskineko ezaugarrien taulan zehaztutako titulua eduki behar du, edo, bestela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulua lortzeko moduan egon*". Aipatutako I. eranskinak, besteak beste, CAP – Gaitasun profesionalaren ziurtagiria tituluaren betekizuna ezartzen zuen.

Deialdia NAOren 225. zenbakian argitaratu zen, 2022ko azaroaren 14an, eta 15 egun naturaleko epea ezarri zen eskaerak aurkezteko. Epe hori 2022ko azaroaren 29an amaitu zen. Andoni Aldalur Zulaika jaunak CAP tituluaren egiaztagiria aurkeztu zuen, 2022-12-18ra arteko indarraldiarekin.

CAP tituluaren indarraldia 5 urtekoa izango da, eta ezin da luzatu alde aurretik ikastaro teorikoa gainditu gabe. Beraz, uste da 2022ko abenduaren 18an lortu zela, eta data hori deialdian ezarritako epetik kanpo dago.

Mendialdea Mankomunitateak CAP titulua berritzeko edo emateko nahitaezko ikastaroa egin izanaren ziurtagiria eskatu zion izangaiari, eta interesdunak prestakuntza horretarako baimendutako eta egiaztatutako prestakuntza-zentroaren ziurtagiria aurkeztu zuen. Ziurtagiri horretan berariaz jasota dago Aldalur jauna 2022-12-09tik 2022-12-18ra egin beharreko ikastaroan inskribatu zela.

Ikastaroa egiteko epe hori eskabideak aurkezteko epetik kanpo dago, bai hasieran, bai amaieran, eta, beraz, Aldalur jaunak ezin du egiaztatu 3.1.c) oinarrian jasotako baldintza: "*I. eranskineko ezaugarriko adierazten dituzten titulua izatea edo, bestela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko moduan egotea*". Aurkeztutako CAP tituluaren agertzen den datarekin egiaztatu du baldintza hori.

Deialdiaren 10.3 oinarrian xedatutakoaren arabera, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdiaren 3. oinarrian eskatutako baldintzaren bat betetzen dela egiaztatzen ez duten izangaiak ezin izango dira izendatu edo kontratatu, eta haien jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna alde batera utzi gabe.

Beraz, Lehendakaritzaren izendapen proposamena egintza deuseza da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 15eko 39/2015 Legearen 47. artikulua araberaz; izan ere, egintza adieraziak dira, eta, haien bidez, ahalmenak edo eskubideak eskuratzen dira, horiek eskuratzeko funtsezko betekizunak betetzen ez direnean.

Era berean, lege horren 108. eta 109. artikuluek aukera ematen dute egintzak errebokatzeko eta egintzak oker zuzentzea, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten jaregite edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa, eta egintza betearaztea eteten badu, baldin eta errebokazio horrek kalte konponezinak edo konponagaitzak eragin baditzake.

Hau guztia kontuan izanda, 23/2024 LERen bitartez, epaimahai kalifikatzailearen 2023ko urtarrilaren 31ko deialdiaren akta eta Andoni Aldalur Zulaika jauna izendatzeko proposamena egiten zuen 2023ko otsailaren 2ko Lehendakaritzaren Ebazpena erabat deusez deklaratu ziren, eta deialdiaren epaimahai kalifikatzaileari eskatu zitzaion, deialdiaren 10.4 oinarriarekin bat etorritz, hutsik geratu zen plazaren betekizunak betetzen zituen izangaiaren aldeko kontratazio-proposamena egin zezala. Lanpostu hori 8. eta 9. oinarrietan aipatzen diren gainditutakoen zerrendan sartuta dago berehala, eta deialdiaren 10. oinarriaren aurreko apartatuetan adierazitako moduan jardun zuen.

3. Gora jotzeko errekurtoa eta Auzitegiaren ebazpena

Ebazpen horren aurka, Andoni Aldalur Zulaikak 23-00642 zenbakiko gora jotzeko errekurtoa jarri zuen. Horren aurrean, Mendialdea Mankomunitateko Lehendakaritzak interesdunei jakinarazi eta Nafarroako Administrazio Auzitegiari igorri zion espediente. Honek Andoni Aldalur Zulaikak aurkeztutako errekurtoa desestimatu zuen 2024ko urtarrilaren 11ko 31.Ebazpenaren bidez.

Behin Ebazpena jasota, eta 23/2024 Lehendakari Ebazpenean jasotakoari jarraituz, epaimahai honek erabaki du:

BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA ETA BETEBEHARRAK FROGATZEA

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta Andoni Aldalur jauna prozesutik kanpo geratuz, epaimahaiak erabaki du, behin betiko merezimenduak ikusita, puntuaziorik handiena duen izangaiari, Jose Maria Aizpitarte Salaberriari, 10 egun balioduneko epea ematea mankomunitatearen bulegoetan honako dokumentazio hau aurkezteko:

Eskatutako tituluen kopia:

- DBHko graduatu-titulua, eskola-graduatu, lehen mailako lanbide-heziketa edo baliokidea.
- C gidabaimena
- CAP – Gaitasun profesionalaren ziurtagiria

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea:

- Euskara B1 Ahozkoa.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura 14:15etan amaitu da, eta akta hau egin da, adostasunaren frogagisa. Horren guztiaren fede ematen dut idazkari naizen aldetik, lehendakariaren oniritziarekin.

LEHENDAKARIA



IDAZKARIA



BATZORKIDEA

